

NORK LAPURTU ZIZUEN EZPATA?

Lizarra (2001.6.11)

ESPARRU POLITIKOAN KOKATU GAITEZEN

Oso joera ezberdineko politikari eta adituek 70ko hamarkadan zera onartzen zuten: gerra ondoko berrogei urteko diktaduraren eta mendetako despotismoaren "lorpenak" bere horretan mantentzearen -eta gainditzearen- alde zeudenek topatu behar zuten oztopo nagusia gure herriaren indar demokratikoa zela. Kontua da (prozesua eta zioak jada ondo eta sakontasunez aztertu dituzte) herriaren borondate hori ez zela behar zen moduan bideratu eta emaitza begi bistakoa da: iruzur demokratikoa, funtsean erregimen totalitarioaren jarraipena, horren izaera bereziak dakartzan akats guztiekin batera. Garai hauetan, gutxi batzuk bakarrik pentsa dezakete sistema demokratiko batean bizi garela, hau da, boterea benetan erakunde ezberdinetan berezita dagoela eta horietako bakoitzak erakundearen eta legeriaren berme osoak dituela bere helburuak bakez lortu ahal izateko Zuzenbide Estatuaren barruan. Aitzitik, Estatuak zenbait kasutan jarduera ekonomikoa hartu eta bere egitura propioetan sartzea lortu duen bezala, jarduera hori Estatuako sozialismo edo kapitalismo bilakatuz, gauza bera egin dezake jarduera politikoarekin. Horrela, nolabait esateko "Estatuaren demokrazia" sortuko litzateke, guztiz ezberdina den Estatu demokratikotik bereizteko alegia.

Estatua bera kontrolatu beharko luketen erakunde eta organismoak horrela Estatuaren botere ahalguztidunaren bitarteko edo baliabide bilakatzen dira. Izaera totalitarioa duen Estatu horrek jainko lurtarraren itxura hartzen du, denontzat omen diren Moralaren eta Zuzenbidearen zaindari, zerbitzari, bermatzaile eta egile. Gizarteak (berau osatzen duten azpitalde politikoek) Estatuaren gain beti izan behar duen kontrol politikotik aske geratzen da Estatua eta azkenean, despotismoari helduz, inolako mugarik gabe gobernatzen du askatasuna, justizia eta guztion ongiaren izenean, biztanle atomizatuen gainetik, aurretik bere menpeko askoren arimak nahi duen modura eta formara aldatuz. Horrela, Estatua besterik gabe aipatutako idealen berrero bilakatzen da, -gobernatzaile eta gobernatuetatik independente-, ordena politikoa neutroa eta inpersonala, legearen inperioa, jarduera politiko eta askatasun guztien baldintza, arlo eta bermea.

TOTALITARISMO MODERNOA MODERNITATEAREN MOZORROAZ BAKARRIK INPOSA DAITEKE

Berez, hitz handi horien atzean egitura materialetan islatzen diren euren helburu nazionalista berezien garapena eta eraketa besterik ez dago. Xede horiek historian zehar indarkeriaren ondorioz sortu eta oraindik indarkeria oinarri gisa daukan gizarte egituraketan islatzen dira. Indarkeria bere eragina denboran zehar mantentzeko gai denez, gaur egun oraindik indarkeria erabili egiten da ikuskorragoa zen unetan erabili zen intentsitate berarekin. (Grezieraz ondo adierazten dute denboran zehar luzatzen den ekintza hori -eta ekintzarekin

batera honen eragina- aditz forma berezi baten bitartez). Menperatu gaituzten Estatuak, bakoitzak bere erara eta bide horri helduz bakoitzak lortu duen "perfekzio" mailaren arabera, horrelakoak dira. Dekretuen bidez, bitxia bada ere, mugatu, xedatu eta finkatzen dituzten adierazpen eta hezkuntza askatasunari buruzko gogoeta demagogiko eta arranditsuen atzealdean euren monopolio ideologikoa ezkututzen dute; monopolio ekonomikoa ezkutuan gordetzen dute bulego beretik finkatu eta koordinatzen den politika ekonomiko bera betetzen duten milaka enpresen bitartez; monopolio politikoa ere ezkutupean daukate boterea duten jauntxo berezile eta baztertzailleek ezarritako arauen arabera mugitzen diren siglen bitartez (ia zorarena ere erdiesten delarik ohiko liturgia taktiko-integratzaileetan, lilura mistikoaz hauteskundetzat jotzen dituzten prozesuetan alegia). Ministerioetatik zuzendutako aisialdiak eta kirolak jendea erregimenean murgildu eta doilortu egiten dute. Hortik aurrera, produktua saltzea da kontua, eta horretarako etiketa eta itxura nabarra ematen zaizkio, Tocqueville-k zuzentasunez esan zuen bezalaxe, totalitarismo modernoa demokraziaren mozorroaz bakarrik inposatu baitaiteke. Halako ezaugarriak dituen merkatu politikoa kontsumitzailearen aukeraketak ia ez du garrantzirik: beti erakundeek prestatutako egituraketaren alde egiten du -helburuak, rolak, prozedurak eta baliabideak-, Estatuak bere estrategia genozida eta kolonialista bideratzearen indarrez mantentzen eta diseinatu duen egituraketa alegia.

Testuinguru horretan, herri zapaldua, bere egoera zein den jakinik, baina maila politiko egokia lortu ezinik, nahitaez desagertzeko zorian dagoen herria dugu. Bere botere ekonomikoa eta kulturala gero eta gehiago murrizten joango da eta egunen batean ezin izango du inolako protagonismorik eduki politika munduan eta, noski, ezta historian ere.

MAILA POLITIKO EGOKIA LORTU EZINIK

Zer egin dezakegu egoera honetatik ihes egiteko? Behin eta berriro nafar hiritar kezkatuen ahotan entzundako galdera da hori. Ontzat ematen dugun erantzun teorikoa edo orokorra (gurea bezalako iritzi taldean espero daitekeen bakarra) jada hor goialdean aipatu dugu, eta gure aldizkariaren aurreko alean lerro hauek idatzi dituenak baino luma jakintsuagoek ere aipatu zuten: kontua da estrategia egokia praktikan jarri behar dela, eta oraingoz horretarako nahitaezko baliabideak eskura dauzkagu; kontua da "konponbidea lortzeko arazoa bere eremu propioan" kokatu behar dugula, eremu politikoan alegia. Une honetan disjuntzio erabat eskusibo baten aurrean gaude, hau da, argi eta garbi esanda: edo bide POLITIKOARI heldu eta hortik aurrera egiten dugu, gure baliabideak POLITIKOKI prestatuz eta bideratuz POLITIKOKI finkatutako norabidean aurrera egitearren, edo bestela plisti-plasta egiten jarraitzen dugu infrastrategiazko lokaztietan, hortxe sartu baikaitu hainbat gizaseme maltzur eta/edo lotsagabek, betiere harrিতa eta lur jota gaudelarik -inolako arrazoirik gabe- gure lanak etekinik ematen ez duelakoan. Helburu politikoak erdietsi nahi izatea ekimen erabat desegokien bidez, beste esparru bati dagozkion heinean, guztiz zentzugabea da, futbol partida billarrean jokatuz irabazi nahi izatea bezalakoa.

POLITIKAZ KANPOKO "ADITUAK"

Hala eta guztiz ere -eta hementxe dugu paradoxa-, askok eta askok esaten dute ez dela politika eza bizi ditugun arazo larriei aurre egitea eragozten diguna, aitzitik politika gehiegi omen dagoelako ezin diegu aurre egin. Lelo hori noizean behin argi eta garbi botatzen digute; baina etengabe irakasten eta buruan sartzan ari zaizkigu, isilpean eta maltzurkeriaz, "euskal politikari" guztien portaera eredugarriaren bitartez alegia.

Behin eta berriro etengabe errepikatzen digute gizarteak dauzkan arazo guztiak ingeniari-tza sozialaren ekimen egokien bidez konpon daitezkeela eta, politikari dagokionez, arazoak muturreraino eramateak horien ulermena eta irtenbide positiboa galarazten duela. Euskara, langabezia, gure arlo ekonomiko nagusien garapena eta eraldaketa, arazo demografikoak, droga, bazterketa soziala, norberekeria eta moralitate eza, indarkeria kalean, ikerkuntza, eskola porrota, osasungintza, eta abar, horiek guztiek politikaz kanpoko adituek bakarrik eskain ditzaketan irtenbideak behar dituzte. Horrela, teknologia ezberdinak eta burokrazia zintzoa eta eragingarria tresna zuzentzaile (master sciences) bilakatzen dira, greziarren garaietatik hasita lehentasuna ematen zitzaien Politika sensu stricto-ren kalterako alegia. (Bide horretan lortu den eragelkeri mailak eta baliabideen xahupenak (denbora ere alperrik galduz) gauzak deskribatzeko izan genezakeen gaitasuna gainditzen dute). Aurre iritzi hori abiapuntu gisa hartuz, jarraian orban gabeko logikari helduz zera adierazten dute: praktikan "aditu" ahalguztidunak (orain horri politikaria esaten omen zaio) axiomatikoki gai ez den politikaria ordezkatu behar duela; zintzotasunak eta elkarrizketa gardenak (honesty is the best policy) konspirazioa eta azpikeria ordezkatu behar dituzte; zientziaren arabera hartutako erabakien ordezkari guztiz eragingarriak izanik, bidegabekeri eta kontingentzia politikoak izango genituzke. Beraz, gaur egun euskal "politikan" oso leku garrantzitsua daukan hainbat lagun inoiz politikaz arduratu ez izana ez da kasualitate hutsa eta gainera inolako lotsarik gabe jendaurrean ere adierazten dute apolitikoak direla.

Zenbait lekutan Politika bera (Politics) Teknikaz (Policy) ordezkatzeari edo nahastea zertxobait negatiboa izan badaiteke, guretzat guztiz kaltegarria da. Inozokeriaz ordezkatzeari hori defendatzen dutenek indarrean dauden baliabideen administrazioaren arazoa nahastu egiten dute horien banaketa egokia eta prestakuntzaren arazoarekin. Gehienez jota, horren egitekoa Boterearen irudia goratzea litzateke hark eman edo uzten dituen baliabideen administrazio zuzenaren bitartez.

HAIEN GARAIPENAK GURE PORROTA ESAN NAHI DU

Baina berez iskanbila hori sustatzen dutenek ez dira hain inozoak, ederki asko dakite zer nahi duten. Lehen konspirazioa eta azpikeria irakurtzen genuen tokian, gatatzeko eta helburu eta interesen aurkakotasuna jartzen baditugu; gaitasun eza eta kontingentzia genuen tokian indarren arteko gorabeheren egoerak zehaztutako benetako aukeren murrizketa jartzen

badugu; orduan ez zaigu zaila egingo ditxosozko ultrateknologo eta moral zale horien helburu totalitario - kontserbatzaileak zein diren sumatzea. Aristotelesek erakusten zuen bezalaxe, gizaki apolitikoa piztia edo jainkoa izan daiteke bakarrik. Gure teknologoek ez dute euren burua piztiazat hartzen, ergo argi dago jainkoak direla uste dutela eta hala izanik gure kontu guztiak zuzendu eta kontrolatu nahi dituzte Leviathan-en oniritzia eta babesarekin. Euren nahiei men egiteak nahitaez erabateko menpekotasuna dakar. Orduan bakarrik jarri baititzakete praktikan, inolako traba politikorik gabe, euren trebetasunak, baina euren benetako betiko helburuen zerbitzura, une honetan defendatzen omen dituzten xedetarik guztiz ezberdinak izanik. Haien garaipenak gure porrota esan nahi du, euren botere absolutua gure erabateko menpekotasunaren isla besterik ez da. Esparru politikotik at bota eta gero, arma eta babesik gabe, etsaiaren menpe geratuko ginateke, euren kolpeak besterik gabe hartzen dituzten panpinak bagina bezala, behin-betiko knock-out delakoa jaso arte. Gogora etortzen zaizkigu Leopardi-ren hitzak, olerkari handiek kontzeptua aditzera ematean izaten duten zehaztasuna eta edertasunarekin zera esan baitzien bere herrikideei: "Nork lapurtu zizuen ezpata? Esaidazue, nork egin zizuen traizio?"

Euren burua politikaritzat hartzen dutenen hitz huts eta eragin gabekoaz nazkatuta eta horiei ere susmo txarra hartuta, beste batzuk uste dute zerbait egiteko garaia badela, eta "teknikoa" litzatekeen beste iharduera garatzea proposatzen dute benetako jardura politikoaren ordezkotza gisa, eta horrela, azken horrekin nahastu egiten dute modu arriskutsuan eta antzuan. Gerra politikaren jarraipena dela beste baliabideen bitartez esaten denean, bi iharduera horien artean nolabaiteko hierarkia funtzionala bereizten eta finkatzen ari dira; argudio hori aldatuz, batzuk aurkakoa diotenean, politika gerraren jarraipena dela beste baliabide batzuen bitartez alegia, aldi berean esan nahi dute kontzeptu eta iharduera ezberdinak eta neurgarriak direla, biak lotuta badaude ere. Clemenceau-ren hitzak erabiliz, esan genezake, gaia zertxobait gehiago argitzearen, indarkeri mota ezberdinen erabilera eta administrazioa oso gauza serioa dela politikaz kanpoko "adituen" eskuetan uzteko.

Nazkatu arte behin eta berriro esan dute bizi dugun gatazkak sustrai politikoak dituela eta irtenbideak ere politikoa izan behar duela. Beraz, badirudi esaten duguna esaten dugunean zer esan nahi dugunari buruz lehenbailehen ados jarri behar dugula. Gai horri dagokionez, nahita edo nahigabeko zehaztasun ezak eragindako desadostasunaren ondorioek sufrimendu eta gaitz asko ekarri eta ekartzen dituzte. Horregatik, ezin diogu axolagabekeriaz herriari eztabaidaren aukera kendu, era antidemokratikoan agian askatasuna erdiesteko geratzen zaion bide bakarra ixten ari baikara.